GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa*** *izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa Berria

# LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

Xabi Kortabarriak Mondragon Goi Eskola Politeknikoan Mekatronika Industrialeko goi mailako heziketa zikloa ikasi du, *Ikasi eta lan* modalitatean. Egun, Fagor Arrasaten lanean ari da. Bere esperientzia kontatuko digu hurrengo elkarrizketan.



**Zer dela-eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Batxilergotik zuzenean Lanbide Heziketara salto egin nuen. Arlo industrialeko ziklo hau egiten hasi aurretik goi mailako beste bi ziklo nituen eginak: Diseinu Grafikoa eta Argitalpen Produkzioa.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?**

Ikasitako arloan ez nuenez lanik aurkitzen, mantenu arloko ziklo hau egitea erabaki nuen. Betidanik gustatu izan zait gauzak muntatu eta desmuntatzea, eta, inguruan enpresa industrial asko daudenez, banekien lana aurkitzea errazagoa izango zela.

**Zein ezaugarri ditu *Ikasi eta lan* ikasketa modalitate berezi honek?**

Zikloa ikasi bitartean, lanean ibili naiz Fagor Arrasaten. Goizez ikasi eta arratsaldez lanera. Sei ikasle ibili gara. Eskolaren eta Fagorren arteko programa bat da, eta, egia esan, asko eman dit. Eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzen du, baina, batez ere, lanerako eskatzen diren jarrerak ikasten dira: ardurak hartzen, taldean lan egiten...

**Eta praktikarik egin duzu?**

Bi aukera genituen: praktikak ohiko moduan egitea edo Fagorren urtebeteko kontratua egitea ohiko langile moduan, eta bukatzean praktikak baliozkotzea. Guztiok aukeratu genuen bigarren aukera hau. Perutik bueltatu berri naiz, makina bat muntatzetik. Apirilean, urtea betetzean, titulua jasoko dugu.

**Zer egin zitzaizun gogorrena?**

Gogorrena lana eta ikasketak bateratzea izan da, eskolako lanak egiteko denbora laburra izaten nuelako. Baina irakasleek malgutasunez jokatzen zuten lanean ari ginenokin.

**Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?**

Ikasketa hauek interesgarriak dira, oso arlo zabala hartzen dutelako: pneumatika, hidraulika, mekanika, instalazioa, mantenua, eta abar. Eta gainera, lanerako gertatzen zaituzte.

**Arlo profesionalean onurarik izan al du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana?**

Bai, noski. Ikasten ari nintzela egun erdiz eta azken urtean egun osoz lanean ibili naiz benetako enpresa batean. Apirilean kontratua bukatzen zait eta titulua eskuratuko dut. Bertan jarraitzeko esperantza daukat.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa***
*izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA



# *Lanpostu konkretu batzuetan, lanbide heziketak erraztasun handiagoa eskaintzen du lan munduan sartzeko*



Roberto Lozanok Mariaren Lagundia Ikastolan goi mailako Gizarte Integrazio heziketa zikloa ikasi zuen, 10 urtez lantegi batean lanean jardun eta gero. Ekainean bukatu eta orduz geroztik, Aita Menni ospitalean lanean dihardu ikasitako horretan.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?**

Aurretik Mekanizazioko erdi mailako zikloa ikasi nuen Miguel Altunan, eta 10 urte neramatzan lantegi batean lanean. Zalantzan jartzen hasi nintzen, ea horrela jarraitzea nahi nuen eta erabaki nuen aldaketa bat bilatzea. Lanean jarraitzen nuen bitartean, Bergarako EPAn 25 urtetik gorakoendako unibertsitaterako sarbide froga prestatzen hasi nintzen eta baita lortu ere. Sarbide froga hori gainditutakoan 2 aukera nituen; unibertsitate mailako ikasketak egitea edota goi mailako heziketa ziklo bat.

**Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**

Gaia edo arloa argi nuen; pertsonekin lan egin nahi nuen, pertsonei denbora eskaini eta lagundu. Begira hasi nintzen eta Bergaran Mariaren Lagundian topatu nuen bila nenbilena. Lanbide Heziketa 2 urteko ikasketak izateaz gain, lan munduan sartzeko, lanpostu konkretu batzuetan, erraztasun handiagoa eskaintzen du, unibertsitate ikasketak baino.

**Zer egin zitzaizun gogorrena?**

Heziketa zikloa ikasten egon naizen denboran goizez eskolara joaten nintzen, eta arratsaldez, 14:00etatik 22:00etara lanera. Azkenean norberaren gauzetarako, inguruko pertsonentzako ezta erosketak egin edo bazkaria prestatzeko ere ez duzu denborarik!

**Zer eman zizun Lanbide Heziketak? Zer azpimarratuko zenuke?**

Nahi nuen arloan lana topatzeko aukeraz gain, zentroak eman didan gertuko harremana, gertutasuna ere aipatzekoa da.

**Nola hasi zinen Aita Mennin lanean?**

Praktikak bertan egin nituen monitore bezala; tailerrak antolatu eta kanpoko ekintzetara taldeak laguntzea zen nire zeregina. Bukatutakoan lana eskaini zidaten eta hor jarraitzen dut. Orain Diputazioko unitate berri batean nabil lanean, adimen urritasuna eta portaera-nahasmendua duten pertsonekin.

**Eta ikasten ere jarraitzen duzu, ezta?**

Bai, Arizmendin Erizaintzako Zaintza Osagarriak, erdi mailako zikloa burutzen ari naiz, hainbat ikasgai baliozkotuta, nire perfila osasun arloko jakintzaz osatzeko. Agian, datorren urtean Gizarte Hezkuntza ikasten hasiko naiz UNED-en, sarbide froga gaindituta dudala aprobetxatuz.

# *Madriletik Aretxabaletara etortzeak benetan pena merezi izan du*

Patricia Yuste, gure bailaran berria den Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta erdi mailako zikloaren lehenengo maila egiten ari da Aretxabaletako Lanbide Eskolan. Madrildik Euskal Herrira etorri da trebatzera eta batez ere arlo horretan lana bilatzera.



**Zergatik etorri zara honaino ikastera?**
DBH bukatu ostean, duela urte batzuk, Irudi Pertsonala erdi mailako zikloa egin nuen. Urteak pasatu ditut era guztietako aldi baterako lanak eginez, baina azken urteetan Madrilen egoerak txarrera egin du. Lana merkatuan sartzeko giltza formazioa dela argi nuen, baina Madrilen lana aurkitzea ia ezinezkoa da; beraz, bertatik irten eta ziklo berbera Euskal Herrian ikasteko aukerak aztertzen hasi nintzen, eta hemen nago.

**Zergatik aukeratu zenuen Euskal Herria, eta Aretxabaleta?**
Betidanik Euskal Herritik gertu sentitu naiz eta hemen langabezi tasa txikiagoa, eta lan egoera Madrilen baino hobea denez, ez nuen zalantzarik izan. Hainbat ikastetxerekin jarri nintzen harremanetan, eta Aretxabaletako Lanbide Eskolan hasieratik harrera ona egin zidaten, matrikulazioa egiteko erraztasunak eskaini zizkidaten. Orain Arrasaten bizi naiz beste 3 pertsonekin.

**Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**
Formazioa lana aurkitzeko lehen urratsa dela argi nuenez, Madrilen jada 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatera sartzeko froga prestatzen hasi nintzen. Dena den, Lanbide Heziketa hautatu nuen, besteak beste, ikasketa kontzentratuak direlako, denbora laburragoan lanbide bat ikasi eta lan merkatuan sartzeko aukera eskaintzen duelako.

**Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?**
Lanbide Heziketaren abantailetako bat 3 hilabetetako praktikaldia da; askotan enpresa horretan bertan gelditzeko ateak zabaltzen dizkizu, eta nahiz eta hori ez gertatu, esperientzia hori CV-ean gehitu dezakezu, lana bilatzerako orduan. Lehenengo mailatik astean bi orduz pertsona nagusien egoitzara joaten gara, boluntario bezala, eta horrek aukera ematen digu gelan ikasitakoa egoera errealetan praktikan jarri eta benetako pertsonekin harremanak izateko.
Honetaz gain, pertsonen laguntzaile izateko jakin beharreko gaiez gain, lanerako eskatzen diren beste hainbat jarrera lantzen dira; arduratsua izaten, puntualitatea...

**Zer balorazio egiten duzu?**
Badira egunak familiako pertsonengandik urrun sentitzen naizena, baina dena dela, edozeini gomendatzeko esperientzia da. Benetan gustura nago, eta ziur aski nire etorkizuna hemen egongo da.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa*** *izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*

—

*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*

—

*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa***
*izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa

## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

# *Lanbide Heziketak, lan arlora sartzeko erraztasunak ematen ditu*

**Xabier Agirre, egun erdiz lanean dihardun bitartean, Hotzeko Estanpazioan graduondoa egiten ari da Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Puntu honetara iristeko, lanbide heziketaren bidea hartu zuen: Mekanizatuan erdi mailako heziketa zikloa, ondoren goi mailako zikloa burutzeko sarbide froga prestatu eta goi mailako zikloa Proiektu Mekanikoen Garapenean. Gainera, praktikak atzerrian egin ditu.**



**DBH bukatu eta berehala hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Bai. Batxilergoa egitea zaila ikusten nuen, nere notak garai hartan ez zirelako oso onak, baina argi nuen ikasten jarraitu behar nuela eta lanbide heziketa egitera animatu nintzen, ikasten jarraitzeko bide bezala. Gainera inguruko enpresetan lanbide heziketako ikasleen eskaera handia zen eta lanbide heziketa egitea ideia ona zen lanean hasteko.

**Zer esaten zizuten gurasoek edo ingurukoek?**

Gurasoentzat Lanbide Heziketa ezaguna zen, aita Lanbide Heziketa ikasitakoa delako, Bergaran bertan.

**Erdi mailako zikloa bukatuta, zerk bultzatu zintuen jarraitzera?**

Hasieratik helburu bat ezarri nion nire buruari; gutxienez, goi mailako ziklo bat egitea. Inguruko enpresetan goi mailako zikloa edukitzea asko baloratzen baitute, eta Proiektu Mekanikoen diseinua hautatu nuen.

**Praktikak atzerrian egin dituzu. Zer nolako esperientzia izan da?**

Alemanian egon naiz, Gottingen-en. Esperientzia oso ona izan da; gauza asko eman dizkit, bai lan arloan eta baita arlo pertsonalean ere; Enpresa bateko bulego teknikoan aritu naiz lanean.

**Zer eman zizun Lanbide Heziketak?**

Gauza asko, baina zerbait azpimarratzekotan lan arloan sartzeko erraztasuna aipatuko nuke: erdi mailako zikloan, lehenengo urtea bukatzen nengoela, udan lana egiteko deitu zidaten enpresa batetik. Enpresa horretan harreman oso onak egin ditut, eta arrez gero hiru udatan egin dut lan enpresa horretan.

**Lanean zabiltza, baita ikasten ere. Nola bateratzen da hori?**

Animatu nintzen hotzeko estanpazioa egitera eskaera dagoelako. Gogoz hartuta ondo bateratzen da.

**Lanaekiko, onurarik izan du Lanbide Heziketak? Lana erraz aurkitu duzu?**

Bai. Miguel Altunan asko lagundu didate lanerako esperientzia hartzen. Eskolako lan poltsan izena eman nuen eta ikasketak bukatu baino lehen jada izan nuen enpresa batekin harremana. Ordutik bertan aritu naiz lanean, esperientzia hartzen.

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER**
**LANBIDE HEZIKETAREN**
**AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*

–

*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*

–

*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa***
*izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia


## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

# *"Lanbide Heziketak unibertsitatera heltzeko bidea zabaldu dit"*



Mikel Naranjo Arizmendi Ikastolan Eraikuntza Proiektuak goi mailako Lanbide Heziketako zikloko ikaslea da. Orain, praktikak egiten ari da eraikuntza arloko enpresa batean. Goi mailako heziketa zikloak unibertsitatera sartzeko aukera eman dio eta irailean Arkitektura Teknikoa ikasten hasiko da.

**Batxilergoa bukatu eta berehala hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Bai. Nik Arkitektura Teknikoa ikasi nahi nuen unibertsitatean, baina, ez zitzaidanez nota heltzen, goi mailako heziketa zikloaren bidea gomendatu zidan orientatzaileak. Azkenean, nik heldu nahi nuen lekura heltzeko beste bide bat izan da Lanbide Heziketa.

**Bada, zer eman dizu Lanbide Heziketako Eraikuntza Proiektuak zikloak?**

Eraikuntza arloan lan egiteko oinarrizko gauzak ikasi ditugu, askorik sakondu gabe, baina arlo asko ikusiaz. Efizientzia energetikoari garrantzi handia ematen ikasi dugu eraikinak diseinatzeko orduan.

**Ze profiletako ikasleak egon zarete taldean?**

Gehienak ni baino nagusiagoak ziren. Batzuk aurretik Lanbide Heziketako beste ziklo bat egindakoak ziren, beste batzuk unibertsitateko ikasketak utzi eta arlo praktikoago baten bila etorritakoak...

**Eta praktiketan zertan ari zara?**

Eraikinetan igogailuak jartzeko hainbat aurrekontu prestatu ditut, konparaketa batzuk egin, *plomada* batzuk bota eta planoak marraztu... Izan ere, oso lan interesgarria egiten ari naiz, eta asko ikasten.

**Ekainean bukatuko duzu zikloa. Gero zer egingo duzu?**

Unibertsitatera joango naiz Arkitektura Teknikoa ikastera. Lanbide Heziketak unibertsitatera heltzeko bidea zabaldu dit. Pentsatzen dut Arkitektura ikasteko oinarri ona eman didala. Gainera, lehenengo urtean bospasei ikasgai baliozkotuta izango ditut.

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER**
**LANBIDE HEZIKETAREN**
**AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu,*
*baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta*
*lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu*
*lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa***
*izan daiteke **zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta***
***ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa
BERRIA

## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

# *"Lanbide Heziketako ikasketak lan merkatura bideratuago daude"*



Andoni Bernal-ek Lanbide Heziketako goi mailako bi ziklo burutu ditu eskualdeko bi zentro desberdinetan. Berarentzat Lanbide Heziketak lanera begirako prestakuntza eskaintzen du. .

**DBH bukatuaz bat hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Ez. Batxilergoa bukatu eta unibertsitatean hasi nintzen Ingeniaritza Informatikoa ikasten. Nik gauza praktikoago bat nahi nuen, eta urtebete ostean Mondragon Goi Eskola Politeknikoan bertan Lanbide Heziketako goi mailako Sareko Informatika Sistemen administrazioa zikloa egiten hasi nintzen.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**

MGEP-an bertan eta baita inguruko jendearen esperientziak entzunda ere. Banituen inguruan Lanbide Heziketa ikasitako pertsonak eta esperientzia positiboak kontatzen zizkidatenez, Lanbide Heziketa ikastera animatu nintzen.

**Zer alde ikusten duzu unibertsitatearen eta Lanbide heziketaren artean?**

Unibertsitateko ikasketak luzeagoak izatean, gai teoriko gehiago eta batzuk abstraktu xamarrak izaten dira. Lanbide Heziketak aldiz erabilgarritasun handiagoa du, lan merkatura bideratuago dago.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketan jarraitzera?**

Lehenengo zikloaren ostean praktikak egin nituen enpresan, 6 hilabetez. Baina kontratu hura bukatuta eta lan merkatuaren egoera ikusita, beste ziklo bat egitea erabaki nuen. Enpresagintzan, Administrazio eta Finantza goi mailako zikloa egitea erabaki nuen, nahiz eta aurreko zikloarekin harreman handirik ez izan.

**Lanbide Heziketa praktikekin osatzen da. Zer iritzi duzu praktiken inguruan?**

Zikloaren bigarren urtean 3 hilabeteko praktikak burutzen dira. Aberasgarriak dira: lan esparrua ezagutu eta ikasitakoarekin zein lanpostu motetan lan egin dezakezun ikusten duzu, ezagutzak aplikatu eta kasu askotan bertan lanean geratzen zara. Hala, informatika enpresa batean 6 hilabetez, eta Kutxan urte eta erdiz lan egin nuen. Lan esperientzia garrantzitsua da.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Lanbide Heziketako ikasketek jakintza erabilgarriak eskaintzen ditu, lan-merkatura bideratuta daude, eta inguruko enpresek hau asko baloratzen dute. Gainera bide desberdinak zabaltzen dizkizu; zikloen artean, unibertsitatera begira...

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!**

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa***
*izan daiteke* ***zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzaren 8an eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa

## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

# *"Lanera begira, praktikoak diren ezagupenak ikasten dira"*



Jon Urkia oñatiarrak erdi mailako hiru heziketa ziklo ditu eginda. Bi industria arlokoak, lana bilatzeko asmoz eginak, eta azkena, kirol arloarekin lotutakoa, hura interes pertsonalagatik. Hirurak ere, Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuan. Gaur egun industrian lanean ari da.

**DBH bukatu eta berehala hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten. Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**

Bai. Erabaki nuen ez nuela batxilergoan jarraituko. Ikasgai teorikoak eta orokorrak ikasteak ez ninduen motibatzen eta Mekanizatua, erdi mailako heziketa zikloa egitea erabaki nuen. Industriara bideratutako zerbait nahi nuen, gero lana topatzeko. Eta horrela izan zen; praktikak Matz-Errekan egin nituen, eta bertan gelditu nintzen lanean ia urtebetez.

**Eta horren ondoren beste ziklo bat egin zenuen, ezta?**

Erdi mailako beste ziklo bat egin nuen, Matz-Errekan kontratua bukatu zitzaidanean, makinen mantenuan. Bi zikloak osagarriak dira; batek fabrikazio arloa lantzen du eta besteak, produkziorako makina horien mantenua.

**Mantenuko zikloaren praktikak atzerrian egin dituzu. Non? Zer-nolako esperientzia izan da?**

Portugalen, Lisboan egin nituen praktikak, Da Vinci programaren bidez. Bi astean, bertan, hizkuntza ikasten aritu ondoren, bertako enpresa batean egin nituen praktikak, hiru hilabetez. Euskadiko eta estatuko beste ikasle batzuekin batera egon nintzen, eta esperientzia aberasgarria izan zen. Gainera, handik bueltan ere lana aurkitu nuen.

**Eta nolatan hasi zinen *Landa inguruneko gorputz eta kirol ekintzen gidaritza* ikasten?**

Kirol arloa gustuko dudanez, eta hainbat ikasgai baliozkotuta nituenez, langabezian nengoen bitartean egin nuen; gustatzen zaizkidan beste arlo batzuk lantzeko aprobetxatu nuen.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak? Zer azpimarratuko zenuke?**

Lanera begira, gauza praktikoak ikasten dira, eta horrek motibatu egin ninduen, oso gustura etortzen nintzen eskolara. Gainera, enpresara zoazenean ere, gauza berriak ikasi behar izaten diren arren, oinarrizkoenean prestatuta zaude. Lanerako prestatzen zaituzte Lanbide Heziketako zikloetan.